



2026/02/26an EGINDAKO Ohiko Osoko  
bilkura.

SESIÓN Ordinaria DEL Pleno DE LA  
CORPORACIÓN. Día 26/02/2026.

### BERTARATUAK- ASISTENTES

#### Alkate-Udalburua

Edorta Zubizarreta Alegria

#### Zinegotziak

Alaitz Orueta Arrese  
Irati Iglesias Pozo  
Mikel Luengo Gabarain  
Xabier Uriarte Iñurrategi  
Maite Uribe Beristain  
Antonio Regaño Sajeras  
Josu Ezkurdia Santamaria

Eskoriatzan, 2026/02/26ko, arratsaldeko 18:00etan, Edorta Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Edorta Barandiaran, Dorleta Sologaitoa eta Puri Regidor.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 26/02/2026, en el que quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Edorta Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten Edorta Barandiaran, Dorleta Sologaitoa y Puri Regidor.

ESKU9f2c044a-18c3-4550-a140-6d3a938f2499

2026/02/26  
Ohiko Osoko bilkura  
SESIÓN Ordinaria DEL Pleno

## **1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**

2025/12/22an egindako osoko bilkurako akta onartu da. .

## **2.- ALKATEAREN JAKINARAZPENAK.**

2026ko otsailaren 18ra arte hartutako erabakien berri eman da.

Berariaz eman da 27., 28. eta 29. kreditu aldaketa espedienteak onartzeko Alkate erabakien berri.

## **3.- JUBILATUEN ETXEKO TABERNAREN USTIAPENA ZUEN AURREKO ESLEIPENDUNAK JARRITAKO BERMEA ITZULTZEKO PROPOSAMENA.**

CRISTINA FLORENTINA DAVILAK fidantza bat jarri zuen eskudirutan 2024ko apirilaren 9an, Udalbatzarrak 2024ko apirilaren 25ean egindako bilkuran esleitutako Olazar Jubilatuen Etxeko Taberna-Aretoa ustiatzeko kontratutik eratorritako betebeharrak behar bezala beteko zituela bermatzeko.

Udalbatzarrak 2025eko azaroaren 27an hartutako erabakiz, Olazar Jubilatuen Etxeko Taberna-Aretoa ustiatzeko Cristina Florentina Dávilaren eta udal honen artean 2024/04/29an sinatutako administrazio-kontratua, bion adostasunez, suntsituzat DEKLARATZEA erabaki zuen 2025eko abenduaren 31n.

Bere garaian jarritako fidantza itzultzeko eskatu du CRISTINA FLORENTINA DAVILAK, eta Gizarte Zerbitzuak eta Kirola batzorde informatzaileak fidantza itzultzearen aldeko diktamena eman du.

Idazkariak ohartarazi du bere garaian jakinarazi zuela, bere iritziz, kontratuaren suntsiarazpena ez zela bi alderdien adostasunez gertatu, esleipendunak berak alde bakarretik uko egin ziolako baizik; eta bermearekin Udalari taberna alde aurretik ixteak eta zerbitzua aldi baterako uzteak eragindako kalte-galerengatik dagokion kalte-ordaina ordaindu beharko zela.

Aurreko guztian oinarrituz, Udalbatzarrak, EAJ/PNVko 4 zinegotziak abstenituta eta EH BILDUKo bertaratutako 7 zinegotziek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** CRISTINA FLORENTINA DAVILARI 600 euro ITZULTZEA. Diru hori Udalbatzarrak 2024ko apirilaren 25eko osoko bilkuran hartutako erabakiz esleitutako Olazar Jubilatuen Etxeko Taberna-Aretoa ustiatzeko kontratutik eratorritako betebeharrak beteko zituela bermatzeko jarritakoa zen.

## **4.- ESKORIATZAKO GENERO BERDINTASUNERAKO I. PLANA (2026-2029) ONARTZEKO PROPOSAMENA ETA JENDAURREAN JARTZEKO TRAMITEA HASTEA.**

Gizarte Zerbitzuak eta Kirola batzorde informatzaileak emandako diktamenarekin bat eginda, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Hasiara batean ONARTZEA Eskoriatzako genero berdintasunerako I. plana (2026-2029).

**Bigarrena.-** Jendurrean jartzeko 30 eguneko epea irekitzea, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, edozein pertsona fisikok edo juridikok espedientea aztertu ahal izan dezan Udaleko gizarte-zerbitzuetan, eta, hala badagokio, egoki iriztitako alegazioak eta iradokizunak aurkez ditzan.

Planari inolako alegaziorik edo iradokizunik aurkeztu ezean, behin betiko onartutzat joko da beste erabakirik hartu behar izan gabe, eta testua osorik argitaratuko da Udalaren webgunean.

## **5.- IBARRAUNDI BASERRIAREN DESAFEKTAZIOA BEHIN-BEHINEAN ONARTZEKO PROPOSAMENA ETA JENDAURREAN JARTZEKO TRAMITEA HASTEAN**

Ikusi da Gaztañadui kalea z.g. helbidean dagoen IBARRAUNDI BASERRIA izeneko higiezia, gaur egun MUSEOaren zerbitzu publikoari atxikia, desafektatzeko izapidetutako espedientea.

Udal honen asmoa da higiezin horren kalifikazio juridikoa aldatzea, hau da, jabari publikoko ondasun izatetik ondare-ondasun izatera pasatzea, eta bere erabilpena, zati batean, Beheko Errota (IFK:G20161204), MUSIKA ESKOLARI lagatzea musika-jarduerak egin ditzan.

Higiezin horrek jada ez du betetzen izan zuen helburu publikoa, eta, bere kokapenagatik egokitzat jotzen da MUSIKA ESKOLA gisa erabiltzeko, honako arrazoi hauengatik:

- Gaur egun Musika Eskola dagoen eraikinak honako arazo hauek ditu:
  - o Kokapen desegokia: ibaiaren ondoan dago, eta horrek hezetasun-maila altua eragiten du instalazioetan.
  - o Osasungarritasun-baldintzak: arazoak daude, behin baino gehiagotan arratoiak ibili direlako eskolan.
  - o Ura sartzan da: eraikinaren lurzorua maila kalearen mailaren azpitik dago, eta euri handiko aldietan ura sartzan da.
  - o Aireztapen eskasa: nahiz eta aireztapen artifiziala eduki, aireztapena, orokorrean, nahiko eskasa dela esan daiteke.
  - o Eraginak jardueran: deskribatutako baldintzek zaildu egiten dute musika-tresnak erabiltzea, bereziki haridunak eta haize-instrumentuak, hezetasunak berehala eragiten baitie. Udan adibidez, eskolako jarduera eteten den garaian, instrumentuak lekuz aldatu behar izaten dira eta lokal horretatik atera.
- Udalak ez dauka eraikin horren beharrik bere zerbitzu publikoak eskaintzeko, eta eraikina egoera egokian dago, ez dauka erabiltzaileen osasungarritasuna eta segurtasuna arriskuan jarriko duen arazorik.

Espedientean egiaztatuta geratu da proposatutako desfektazioaren legezkotasuna eta egokitasuna, eta Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamenduaren 8. artikuluan adierazitako prozedura jarraitu da.

Horiek horrela, eta Lurralde eta Garapen Ekonomiko Jasangarriaren batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, legeak eskatzen duen gehiengo absolutuaren quoruma osatuta, honako hau ERABAKI du:

**LEHENENGOA.-** Gaztañadui z.g. helbidean dagoen IBARRAUNDI baserria izeneko ondasun higiezinaren desfektazioa behin-behinean onartzea, eta jabari publikoko ondasun izatetik ondare-ondasun izatera pasatzea, bere erabilpena, zati batean, Beheko Errota (IFK:G20161204), MUSIKA ESKOLARI lagatzeko musika-jarduerak egin ditzan.

**BIGARRENA.-** Espedientea jendaurrean jartzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki-oholean, hilabeteko epean, interesdunek egoki irizitako alegazioak aurkez ditzaten. Alegaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da.

BOTO AZALPENA:

Josu Ezkurdiak esan du bere taldeak, proiektuaren behararekin ados badago ere, faltan bota duela parte-hartze prozesu bat musika eskola nora eraman erabaki aurretik. Erabaki hori zuzenean hartu da, herriari kokalekurik egokiena zein den galdetu gabe. Gaineratu du horregatik, hasiera batean, bere taldea abstenitu egin behar zela, baina, gaiak aurrera jarrai dezan, gehiengo osoaren aldeko botoa behar denez eta zinegotzi batzuk falta direnez, gehiengo hori ez dela lortuko beraiek aldeko botoa ematen ez badute, eta beraz, aldeko botoa emango dutela gaia ez oztopatzeko.

Alkateak berariaz eskertu dio.

## **6.- UDAL LANGILE ETA KARGU POLITIKOEN 2025eko ORDAINSARIEI APLIKATZEKO IGOERA PROPOSAMENA.**

2025/12/02an, Ministro Kontseiluaren Erabakiaren bidez, sektore publikoko ordainsarien arloko premiazko neurriak onartzen dituen abenduaren 2ko 14/2025 Errege Lege Dekretua onartu zen, (2025/12/3ko BOE).

Sektore publikoko langileen ordainsari-igoerei dagokienez, eta baita horiek nola burutu, aipatutako Errege Lege Dekretuak honakoa xedatzen du 2025. URTERAKO ORDAINSARIEN IGOERARI buruz:

*“1. artikulua. Sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsari igoera 2025. urterako.*

*1. Sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariak % 2,5eko gehieneko igoera globala izan ahal izango dute 2025ean, 2024ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, azken horietan barnean direla Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazken ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko zenbait neurri luzatzen dituen eta zerga-, energia- eta gizarte-arloan premiazko neurriak*

hartzen dituen ekainaren 26ko 4/2024 Errege Lege Dekretuaren 6.2 artikuluan jasotako ehuneko 0,5eko ordainsari-igoera gehigarria eta finkagarria. Ordainsarien igoera hori homogeneouski egingo da, konparazio-aldi bietarako, bai langileen kopuruari dagokionez, bai langile antzinasunari dagokionez, eta 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak.

EUDELEk zirkular bat bidali du ondorengo gomendioarekin:

#### **2025. URTEKO ORDAINSARIEN IGOERA ETA NOLA BURUTU**

1.- Onartutako legezko % 2,5eko gehieneko igoera globala onartzea, 2024ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, azken horietan barnean direla ekainaren 26ko 4/2024 Errege Lege Dekretuaren 6.2 artikuluan jasotako ehuneko 0,5eko ordainsari-igoera gehigarria eta finkagarria. Ordainsarien igoera hori homogeneouski egingo da, konparazio-aldi bietarako, bai langileen kopuruari dagokionez, bai langile antzinasunari dagokionez, eta 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak.

2.- Errege Lege Dekretuaren 3.1 artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe, EUDELEk gomendatzen du 2025eko ekitaldiari dagozkion zenbatekoak eta atzerapenak 2025eko abenduan ordaintzea.

Aurrez esandako guztia ikusita, Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Eskoriatzako Udaleko funtzionarioen eta lan-kontratuko langileen ordainsarien % 2,5eko igoera onartzea 2025. urterako, 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin.

**Bigarrena.-** Dediakzioa duten udalbatzarkideen ordainsariak aurreko puntuan ezarritako portzentajearen handitzea, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuen Legean, Gipuzkoako Aurrekontuen Legean eta foru-arauan muga gisa ezarritako ehunekoak eta zenbatekoak gainditzen ez badira.

**Hirugarrena.-** Igoera horiek otsaileko nominan ordaintzea.

**Laugarrena.-** Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

#### **7.- DEBA GOIENENKO BERRONERATZE HIGINTZA BALTZUAREN (SURADESA) ESTATUTUAK ALDATZEKO PROPOSAMENA.**

Beharrezkotzat jotzen da "DEBA GOIENENKO BERRONERATZE HIGINTZA BALTZUAREN (SURADESA)" izeneko udal merkataritza-sozietatearen estatutuak egokitzea eta aldatzea, 2025/09/18an sozietateak berak egindako justifikazio-memorian jasota dauden arrazoiengatik.



Aipatutako memoria aztertu da, eta baita 2025eko abenduaren 18an Administrazio Kontseiluak estatutuetako 1., 2., 3., 4., 4.bis, 5., 6., 8., 9., 10., 11., 12., 13., 14., 15., 17., 18., 19. 21., 22., 23., 24., 25., 26., 27., 28. 29. eta 30. artikulua aldatzeko egindako proposamena ere.

Espedienteko gainerako agiriak aztertuta, eta baita Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako erabaki proposamena ere, Udalbatzarrak, EAJ/PNVko bertaratutako 4 zinegotziak abstenituta, eta EH BILDUko bertaratutako 7 zinegotziek alde bozkatuta, eta beraz, gehiengo osoaren quorumarekin, honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** "DEBA GOIENENKO BERRONERATZE HIGINTZA BALTZUAREN (SURADESA)" sozietatearen estatutuen aldaketa BERRESTEA, Administrazio Kontseiluak 2025eko abenduaren 18an hartutako erabakian jasotako baldintzen arabera.

**BIGARRENA.-** Alkate-udalburuari ahalmena ematea, Udal honen izenean eta ordezkarietan aldaketa horren alde botoa eman dezan SURADESAko Akziodunen Batzar Nagusian.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hau sozietateari berari jakinaraztea.

## **8.- DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA 2026ko AURREKONTUARI EGOKITZEA.**

Udalbatzarrak, 2023ko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Dirulaguntzen 2024-027 Plan Estrategikoa onartu zuen.

Hasierako onarpenaren aurkako erreklamazio edo iradokizunik egon ezenez, eta Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 49. artikulua c) letran apirilaren 21eko 11/1999 Legeak gehitutako azken paragrafoan aurreikusitakoaren arabera, Udalbatzarrak 2019 abenduaren 17an hasiera batean hartutako erabakia behin betikotzat bihurtu zen.

Indarrean dagoen planak, 4. eta 11. artikuluetan, eranskineko dokumentuetara bidaliz, 2025eko ekitaldirako aurreikusitako laguntzak jasotzen ditu

2026ko ekitaldiari dagokion aurrekontua onartu ondoren, planaren ERANSKINAK aurrekontu horren edukira egokitu behar dira.

Aurrez esandako guztiarengatik, eta Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, EAJ/PNVko lau zinegotziak abstenituta eta EH BILDUko bertaratutako 7 udalbatzarkideek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DA:

2026/02/26  
Ohiko Osoko bilkura  
SESIÓN Ordinaria DEL Pleno

**Lehenengoa.-** I. ERANSKINEAN jaso bezala eguneratzea 2024-2027 dirulaguntzen plan estrategikoaren ERANSKINAK, plana 2026ko ekitaldiko aurrekontuen edukira egokitzeko.

## **9.- IDAZKARITZA-KONTUHARTZAILTZAK JARRITAKO ERAGOZPENAK** **(2025eko laugarren hiruhilekoa).**

Udal honetako Idazkaritza-kontuhartzaitzak legezatasun hainbat eragozpen jarri dizkienez Alkatetzak 2025eko urriaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra arte hartutako erabakiei, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateratua onesten duen martxoaren 5eko 2/204 Legegintzako Errege Dekretuko 218. artikuluan ezarritakoaren arabera, txostena aurkezten zaio Udalbatzarrari eragozpen horien aurka hartutako erabakien berri emateko.

Ondoren labur azaltzen dira Udalbatzarrak izandako erabakien eta eragozpenen berri:

1. 2023ko urtarrilaren 17ko Alkate erabakiz baimendutako obrek sortutako EIOZean Santa Ana Auzoko 21. eraikineko bizilagunei aitortutako hobaria (eragozpena eskaera epez kanpo egin zelako).
2. 2023ko urtarrilaren 17ko Alkate erabakiz baimendutako obrek sortutako EIOZean Santa Ana Auzoko 17. eraikineko bizilagunei aitortutako hobaria (eragozpena eskaera epez kanpo egin zelako).
3. eragozpena- "kontrako txostena" kultura laguntzailea lanpostua bitarteko funtzionarioarekin betetzeagatik legez ezarritako prozeduratik kanpo.
4. Dirulaguntzei buruzko eragozpenak:  
*Arizmendi Kirol Elkarteari emandakoa: Irregularitasunak begiraleen egoeran.*  
*Eskoriatza Kirol Elkarteari emandakoa: Justifikatu gabe du 2024ko dirulaguntza, eta aurtengoari dagokionez, ez dago % 100ean justifikatuta 2025ean emandako diruaren beharra.*  
*Bolibar Ugazu auzo elkarteari emandakoa: ez dute bete oinarrietan ezarritako baldintzetako bat, hain zuzen ere, gutxienez gastuaren % 50a herriko dendetan egin beharrekoa.*
5. 8/2025 eragozpena. Kutxa aurrerakinetik 323,38 euro "emandako zerbitzua" printzipioaren aurka ordaindu dira, eta 15,15 euro faktura aurkeztu gabe.
6. 9/2025 eragozpena. Kutxa aurrerakinetik 39,82 euro "emandako zerbitzua" printzipioaren aurka ordaindu dira.
7. 10/2025 eragozpena. Kutxa aurrerakinetik 120 euro faktura aurkeztu gabe ordaindu dira.
8. 11/2025 eragozpena. 1.506,75 euroko kutxa aurrerakinetik 1.444,36 euro "emandako zerbitzua" printzipioaren aurka ordaindu dira.
9. 12/2025 eragozpena. 98,16 euroko kutxa aurrerakinetik 78,16 euro "emandako zerbitzua" printzipioaren aurka ordaindu dira.
10. 13/2025 eragozpena. Kutxa aurrerakinetik 3,75 euro faktura aurkeztu gabe ordaindu dira.

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 8 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

**10.- 2025eko LAUGARREN HIRUHILEKOKO FINANTZA ETA EKONOMIA ARLOKO INFORMAZIOA (Gipuzkoako Lurralde Historikoko Erakundeen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauaren 64. artikulua).**

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 64. artikuluan ezarritakoa betez, 2025eko laugarren hiruhilekoari dagokion finantza- eta aurrekontu-informazioaren berri eman zaio Udalbatzarrari.

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 8 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

**11.- UDAL HONEN BETEBEHARRAK ORDAINTZEKO AURREIKUSITAKO EPEAK BETETZEARI BURUZKO HIRUHILEKO TXOSTENA (merkataritza eragiketetan berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 4. artikulua).**

Merkataritza-eragiketetan sortzen den berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeko 4. eta 5. artikuluetan ezarritakoa betez, Udalak hartutako obligazioak ordaintzeko epeak 2025eko laugarren hiruhilekoan betetzeari buruz diruzaintzak egindako txostenaren berri eman zaio Udalbatzarrari.

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 8 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

**12.- KREDITUAK ALDATZEKO 2026-KALD-000001 ESPEDIENTEA (kreditu transferentzia).**

Udal honetako aurrekontuan eragina duen kredituak aldatzeko 2026-KALD-000001. espedientearen berri eman da. Kreditu aldaketa aurrekontuetako gastu partiden arteko kreditu transferentzia bidez egingo da.

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEAK egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Toki Erakundeen Aurrekontu erregelamendua onartzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 28.a) eta 29. artikuluetan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako aldeko txostena eta onarpen proposamena irakurri dira.

Aurrez esandako guztian oinarrituz, Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Udal honetako aurrekontuari dagozkion kredituak aldatzeko 2026-KALD-000001. espedientea onartzea, horretarako egindako proposamenean zerrendatzen diren aurrekontuetako gastu partiden arteko transferentzia bidez, eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera.

**Kredituak transferituko dituzten gastu partidak (bajak)**

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizket a	Amaierako kreditua
1 0200.227.333.20.33 2026	LAN ARRISKUEN PREBENTZIOA:IBARRAUNDI	726,23	726,23	0,00
1 0200.224.333.20.02 2026	ASEGURUA:IBARRAUNDI MUSEOA	592,64	592,64	0,00
1 0100.227.333.20.12 2026	EDUKIONTZI HIGIENIKOAK:MUSEOA	171,11	171,11	0,00
1 0100.421.162.20.13 2026	MANKOMUNITATEA:HONDAKIN KUDEAKETA	37.242,55	1.855,00	35.387,55
1 0100.421.162.30.13 2026	MANKOMUNITATEA:HONDAKIN TRATAMEN	161.192,4 8	1.079,00	160.113,48
1 0100.421.162.36.13 2026	MANKOMUNITATEA:EPELE FUNTZIONAMENDUA	13.271,17	1.545,00	11.726,17
1 0100.421.241.00.13 2026	MANKOMUNITATEA:ENPLEGUA	32.589,33	1.735,00	30.854,33
1 0100.421.430.00.13 2026	MANKOMUNITATEA:ENERGIA ETA FORU PROGRAMA	3.868,87	77,00	3.791,87
1 0200.421.920.00.01 2026	MANKOMUNITATEA:ADMON.OROKOR RA	73.152,93	4.634,00	68.518,93
1 0100.721.162.10.01 2026	MANKOMUNITATEA:HONDAKIN BILKETA	19.791,50	1.415,00	18.376,50
1 0100.721.432.00.01 2026	APORTAZIOA:MANKOMUNIT: TURISMO	1.709,20	1.705,00	4,20
1 0200.721.920.00.01 2026	MANKOMUNITATEA:ZERBITZU OROKORRA	7.677,46	2.774,00	4.903,46
	<b>GUZTIRA</b>	<b>351.985,4</b>	<b>18.308,98</b>	<b>333.676,49</b>

**Kredituak jasoko dituzten gastu partidak (altak)**

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0200.227.333.40.33 2026	LAN ARRISKUEN PREBENTZIOA:ZUBIATE	0,00	201,53	201,53
1 0200.227.933.01.33 2026	LAN ARRISKUEN PREBENTZIOA:IBARRAUNDI	0,00	524,70	524,70
1 0200.224.933.01.02 2026	ASEGURUA:IBARRAUNDI ERAIKINA	0,00	592,64	592,64
1 0100.227.933.01.12 2026	EDUKIONTZI HIGIENIKOAK:IBARRAUNDI	0,00	171,11	171,11
1 0100.421.133.00.13 2026	MANKOMUNITATEA:MUGIKORTASU NA	0,00	2.005,00	2.005,00
1 0300.421.231.00.13 2026	MANKOMUNITATEA:ONGIZATE KOORDINAZIOA	0,00	2.638,00	2.638,00
1 0100.421.432.00.13 2026	MANKOMUNITATEA:TURISMOA	19.864,56	77,00	19.941,56
1 0200.421.912.00.13 2026	MANKOMUNITATEA:GOBERNU ORGANOAK	0,00	6.205,00	6.205,00
1 0100.721.162.36.01 2026	MANKOMUNITATEA:EPELE	1,00	550,00	551,00
1 0300.721.231.00.01 2026	MANKOMUNITATEA:ONGIZATE KOORDINAZIOA	0,00	5.344,00	5.344,00
	<b>GUZTIRA</b>	<b>19.865,56</b>	<b>18.308,98</b>	<b>38.174,54</b>

\* Aurrekontu partida berriak sortu ahal izango dira.

**Bigarrena.-** Egintza hau irmoa eta exekutiboa izanik bestelako tramite barik, Fondoak Interbenitzeko Zerbitzuak kontabilitatean adieraziko du onartutako kreditu aldaketa berehalako eraginarekin.

### **13.- KREDITUAK ALDATZEKO 2026-KALD-000002 ESPEDIENTEA (kreditu transferentzia).**

Udal honetako aurrekontuan eragina duen kredituak aldatzeko 2026-KALD-000002. espedientearen berri eman da. Kreditu aldaketa aurrekontuetako gastu partiden arteko kreditu transferentzia bidez egingo da.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Toki Erakundeen Aurrekontu erregelamendua onartzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 28.a) eta 29. artikuluetan ezarritako beharizun eta tramiteei.

Era berean, Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako aldeko txostena eta onarpen proposamena irakurri dira.

Aurrez esandako guztian oinarrituz, Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Udal honetako aurrekontuari dagozkion kredituak aldatzeko 2026-KALD-000002. espedientea onartzea, horretarako egindako proposamenean zerrendatzen diren aurrekontuetako gastu partiden arteko transferentzia bidez, eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera.

#### **Kredituak transferituko dituzten gastu partidak (bajak)**

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa		Amaierako kreditua
1 0100.421.162.10.13 2026	MANKOMUNITATEA:HONDAKIN BILKETA	274.824,5 8	26.740,00		248.084,58
1 0100.421.162.30.13 2026	MANKOMUNITATEA:HONDAKIN TRATAMEN	161.192,4 8	10.621,00		150.571,48
	<b>GUZTIRA</b>	<b>436.017,0 6</b>	<b>37.361,00</b>		<b>398.656,06</b>

#### **Kredituak jasoko dituzten gastu partidak (altak)**

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0200.100.912.00.01 2026	OINARRIZKO ORDAINKETAK:LIBERATUAK	51.692,22	1.242,22	52.934,44

1 0200.120.132.00.01 2026	OINARRIZKO ORDAINKETAK:UDALTZAINAK	30.754,59	729,45	31.484,04
1 0200.120.151.00.01 2026	OINARRIZKO ORDAIN:HIRIGINTZA	45.040,12	771,89	45.812,01
1 0200.120.153.40.01 2026	OINARRIZKO ORDAIN:ZERBITZUAK MANT.	59.261,45	1.650,16	60.911,61
1 0200.120.164.00.01 2026	OINARRIZKO ORDAIN:HILERRIA	1.795,76	32,19	1.827,95
1 0200.120.172.00.01 2026	OINARRIZKO ORDAIN:INGURUGIROA	0,00	486,42	486,42
1 0200.120.230.00.01 2026	OINARRIZKO ORDAIN:GIZARTE ZERBITZUAK	49.141,08	414,01	49.555,09
1 0200.120.330.00.01 2026	OINARRIZKO ORDAIN:KULTURA	33.827,87	258,45	34.086,32
1 0200.120.332.10.01 2026	OINARRIZKO ORDAIN:LIBURUTEGIA	25.972,48	404,32	26.376,80
1 0200.120.332.20.01 2026	OINARRIZKO ORDAIN:ARTXIBOA	1.029,67	12,38	1.042,05
1 0200.120.333.30.01 2026	OINARRIZKO ORDAIN:ZALDIBAR ANTZOKIA	1.862,77	6,18	1.868,95
1 0200.120.335.00.01 2026	OINARRIZKO ORDAIN:EUSKARA	25.946,39	538,72	26.485,11
1 0200.120.342.20.01 2026	OINARRIZKO ORDAIN:KIROLDEGIA	27.114,13	618,02	27.732,15
1 0200.120.430.00.01 2026	OINARRIZKO ORDAIN:TOKIKO GARAPENA	20.245,64	311,61	20.557,25
1 0200.120.920.00.01 2026	OINARRIZKO ORDAIN:ADMON OROKORRA	64.281,20	1.401,17	65.682,37
1 0200.120.923.10.01 2026	OINARRIZKO ORDAIN:BIZTANLEEN ERROLDA	7.451,07	278,52	7.729,59
1 0200.120.925.00.01 2026	OINARRIZKO ORDAIN:HERRITARREN ARRETA	12.023,32	61,01	12.084,33
1 0200.120.931.00.01 2026	OINARRIZKO ORDAIN:POLITIKA EKON.	39.015,39	908,19	39.923,58
1 0200.120.932.00.01 2026	OINARRIZKO ORDAIN:TRIBUTU- SIST.KUD.	14.634,92	347,01	14.981,93
1 0200.121.132.00.01	DESTINO	16.113,54	387,02	16.500,56

2026	OSAGARRIA:UDALTZAINAK			
1 0200.121.132.00.02 2026	BERARIAZKO OSAG:UDALTZAINAK	55.537,23	1.322,67	56.859,90
1 0200.121.151.00.01 2026	DESTINO OSAGARRIA:HIRIGINTZA	25.205,51	386,67	25.592,18
1 0200.121.151.00.02 2026	BERARIAZKO OSAG:HIRIGINTZA	56.326,58	898,54	57.225,12
1 0200.121.153.40.01 2026	DESTINO OSAGARRIA:ZERBITZUAK MANT.	32.365,12	1.129,36	33.494,48
1 0200.121.153.40.02 2026	BERARIAZKO OSAG:ZERBITZUAK MANT.	95.676,23	2.581,87	98.258,10
1 0200.121.164.00.01 2026	DESTINO OSAGARRIA:HILERRIA	995,24	17,75	1.012,99
1 0200.121.164.00.02 2026	BERARIAZKO OSAG:HILERRIA	3.356,14	59,11	3.415,25
1 0200.121.172.00.01 2026	DESTINO OSAGARRIA:INGURUGIROA	0,00	219,46	219,46
1 0200.121.172.00.02 2026	BERARIAZKO OSAG:INGURUGIROA	0,00	420,01	420,01
1 0200.121.230.00.01 2026	DESTINO OSAGARRIA:GIZARTE ZERBITZUA	24.366,41	208,82	24.575,23
1 0200.121.230.00.02 2026	BERARIAZKO OSAG:GIZARTE ZERBITZUA	53.015,78	446,34	53.462,12
1 0200.121.330.00.01 2026	DESTINO OSAGARRIA:KULTURA	16.391,34	120,86	16.512,20
1 0200.121.330.00.02 2026	BERARIAZKO OSAG:KULTURA	43.551,69	330,07	43.881,76
1 0200.121.332.10.01 2026	DESTINO OSAGARRIA:LIBURUTEGIA	12.837,49	194,70	13.032,19
1 0200.121.332.10.02 2026	BERARIAZKO OSAG:LIBURUTEGIA	26.603,08	544,62	27.147,70
1 0200.121.332.20.01 2026	DESTINO OSAGARRIA:ARTXIBOA	644,54	7,67	652,21
1 0200.121.332.20.02 2026	BERARIAZKO OSAG:ARTXIBOA	1.263,58	17,11	1.280,69
1 0200.121.333.30.01 2026	DESTINO OSAGARRIA:ZALDIBAR ANTZOKIA	1.137,33	3,79	1.141,12

1 0200.121.333.30.02 2026	BERARIAZKO OSAG:ZALDIBAR ANTZOKIA	2.323,13	7,70	2.330,83
1 0200.121.335.00.01 2026	DESTINO OSAGARRIA:EUSKERA	10.628,85	255,17	10.884,02
1 0200.121.335.00.02 2026	BERARIAZKO OSAG:EUSKARA	19.720,62	546,73	20.267,35
1 0200.121.342.20.01 2026	DESTINO OSAGARRIA:KIROLDEGIA	10.901,07	261,92	11.162,99
1 0200.121.342.20.02 2026	BERARIAZKO OSAG:KIROLDEGIA	36.191,11	894,10	37.085,21
1 0200.121.430.00.01 2026	DESTINO OSAGARRIA:TOKIKO GARAPENA	9.140,71	140,80	9.281,51
1 0200.121.430.00.02 2026	BERARIAZKO OSAG:TOKIKO GARAPENA	17.764,16	269,04	18.033,20
1 0200.121.920.00.01 2026	DESTINO OSAGARRIA:ADMON OROKORRA	51.186,91	783,54	51.970,45
1 0200.121.920.00.02 2026	BERARIZKO OSAG:ADMON OROKORRA	66.778,99	1.803,48	68.582,47
1 0200.121.923.10.01 2026	DESTINO OSAGA:BIZTANLEEN ERROLDA	4.549,34	170,74	4.720,08
1 0200.121.923.10.02 2026	BERARIAZKO OSAG:BIZTANLEN ERROLDA	8.945,67	333,75	9.279,42
1 0200.121.925.00.01 2026	DESTINO OSAG:HERRITARREN ARRETA	6.637,38	31,15	6.668,53
1 0200.121.925.00.02 2026	BERARIAZKO OSAG:HERRITAREN ARRETA	14.245,25	72,49	14.317,74
1 0200.121.931.00.01 2026	DESTINO OSAGARRIA:POLITIKA EKON.	22.070,29	530,04	22.600,33
1 0200.121.931.00.02 2026	BERARIAZKO OSAG: POLITIKA EKONOMIKOA	59.002,28	1.401,31	60.403,59
1 0200.121.932.00.01 2026	DESTINO OSAGARRIA:TRIBUTU SIST.KUD.	7.050,61	169,34	7.219,95
1 0200.121.932.00.02 2026	BERARIAZKO OSAG:TRIBUTU SIST.KUD.	17.144,83	408,71	17.553,54
1 0200.130.153.40.01 2026	LABORAL FINKOA:ZERBITZUAK MANT	35.513,82	844,31	36.358,13
1 0200.130.164.00.01	LABORAL FINKOA:HILERRIA	6.267,15	148,99	6.416,14

2026				
1 0200.130.231.60.01 2026	LABORAL FINKOA:DROGOMENPEK.PREBEN TZIOA	22.174,60	524,96	22.699,56
1 0200.130.333.30.01 2026	LABORAL FINKOA:ZALDIBAR ANTZOKIA	25.081,50	600,88	25.682,38
1 0200.130.342.20.01 2026	LABORAL FINKOA:KIROLDEGIA	25.081,50	600,74	25.682,24
1 0200.131.153.40.01 2026	ALDI BATERAKO PERT:OBRA- ZERBITZUAK	0,00	42,49	42,49
1 0200.131.241.00.01 2026	ALDI BATERAKO PERT:ENPLEGUA	28.616,39	953,32	29.569,71
1 0200.131.241.10.01 2026	ALDI BATERAKO PERT:LEHEN LANBIDE ESPERIE	0,00	1.697,19	1.697,19
1 0200.160.132.00.01 2026	GIZART- ASEGURANTZA:UDALTZAINA	38.931,09	889,03	39.820,12
1 0200.160.151.00.01 2026	GIZARTE- ASEGURANTZA:HIRIGINTZA	37.059,49	141,87	37.201,36
1 0200.160.153.40.01 2026	GIZARTE- ASEGURANTZA:ZERBITZUAK MANT	70.232,23	1.570,91	71.803,14
1 0200.160.164.00.01 2026	GIZARTE- ASEGURANTZA:HILERRIA	4.359,43	53,29	4.412,72
1 0200.160.172.00.01 2026	GIZARTE- ASEGURANTZA:INGURUGIROA	0,00	292,86	292,86
1 0200.160.230.00.01 2026	GIZARTE-ASEGURANTZA:GIZATE ONGIZ	34.134,27	282,95	34.417,22
1 0200.160.231.60.01 2026	GIZARTE- ASEGURANTZA:DROGOMENPEK.P REBENTZ	7.312,92	168,63	7.481,55
1 0200.160.241.00.01 2026	GIZARTE- ASEGURANTZA:ENPLEGUA	10.820,20	427,78	11.247,98
1 0200.160.241.10.01 2026	GIZARTE-ASEGURANTZA:LEHEN LANBIDE ESPERI	0,00	272,43	272,43
	<b>GUZTIRA</b>	<b>1.686.342,6</b>	<b>37.361,00</b>	<b>1.723.703,6</b>

\* Aurrekontu partida berriak sortu ahal izango dira.

**Bigarrena.-** Egintza hau irmoa eta exekutiboa izanik bestelako tramite barik, Fondoak Interbenitzeko Zerbitzuak kontabilitatean adieraziko du onartutako kreditu aldaketa berehalako eraginarekin.

#### **14.- KREDITUAK ALDATZEKO 2026-KALD-000003 ESPEDIENTEA (kreditu gaikuntza).**

Udal honen 2026ko aurrekontuaren barnean kreditu gaikuntzen bidez izapidetzen ari den kreditu aldaketaren **2026-KALD-000003-00** espedientea aztertu da.

Kreditu gaikuntza finantzatuko duten sarrerak bat datoz espedienteari aplikagarria zaion araudian aurreikusitakoekin, eta oso-osorik finantzatzen dute gastu gehikuntza.

Halaber, Idazkari kontu-hartzaileak egindako aldeko txostena ere aztertu da.

Azaldutako guztiarengatik, eta kreditu aldaketak finantzaketa nahikoa eta egokia duela kontuan hartuz, Udalbatzarrak, Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

BAT.- Udal honetako aurrekontuari dagozkion kredituak aldatzeko **2026-KALD-000003** espedientea onartzea ondorengo laburpenaren arabera.

2026ko aurrekontuan gaitzeko kredituak

Gastuen partida	Azalpena	Zenbatek oa
0200.160.241.10.01 2026	1 GIZARTE-ASEGURANTZA:LEHEN LANBIDE ESPERI	264,14
0200.160.330.00.01 2026	1 GIZARTE-ASEGURANTZA:KULTURA	46,36
0200.160.332.10.01 2026	1 GIZARTE-ASEGURANTZA:LIBURUTEGIA	301,32
	1 GIZARTE-ASEGURANTZA:ARTXIBOA	7,45

0200.160.332.20.01 2026			
0200.160.333.30.01 2026	1	GIZARTE-ASEG.:ZALDIBAR ANTZOKIA	198,48
0200.160.335.00.01 2026	1	GIZARTE-ASEGURANTZA:EUSKARA	352,68
0200.160.342.20.01 2026	1	GIZARTE-ASEGURANTZA:KIROLDEGIA	752,62
0200.160.430.00.01 2026	1	GIZARTE-ASEGUR:TOKIKO GARAPENA	197,20
0200.160.912.00.01 2026	1	GIZARTE-ASEGURANTZA:LIBERATUAK	412,92
0200.160.920.00.01 2026	1	GIZARTE-ASEGU.:ADMON OROKORRA	574,73
0200.160.923.10.01 2026	1	GIZARTE-ASEGUR.:BIZTANLEEN ERROLDA	248,87
0200.160.925.00.01 2026	1	GIZARTE-ASEGUR.:HERRITARREN ARRETA	41,50
0200.160.931.00.01 2026	1	GIZARTE-ASEGURANTZA:POLITIKA EKO.	358,03
0200.160.932.00.01 2026	1	GIZARTE-ASEG.:TRIBUTU SIST. KUDEAKETA.	243,70
<b>GAITU BEHARREKO KREDITUAK GUZTIRA</b>			<b>4.000,00</b>

2026ko aurrekontuko kreditu gaikuntzaren finantzaketa

Kod.	Sarrerren partida	Azalpena	Zenbatek
------	-------------------	----------	----------

2026/02/26  
Ohiko Osoko bilkura  
SESIÓN Ordinaria DEL Pleno

			oa
e	2 0200.560.000.00.01 2026	GORDAILUEN INTERESAK	4.000,00
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>			<b>4.000,00</b>

#### KODEEN AZALPENA

e) Bestelako ekarpenak

### **15.- MARTXOAREN 8AN EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA DELA-ETA, EUDELEK PROPOSATUTAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.**

#### **Martxoak 8- Emakumeen Nazioarteko Egunaren adierazpen instituzionala**

Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreal eta eraginkorrarekin dugun konpromisoa irmoki berresten dugu. Printzipio demokratiko hori ukaezina da, eta gizarte justu, aske eta kohesionatu baten funtsezko zutabea.

Gaur, ahotsa irmo altxatzen dugu berdintasuna defendatzeko eta aldarrikatzeko, bere diskurtsoa zokoratzen eta zalantzan jartzen ari baita komunikabideetan, sare sozialetan eta, modu kezkarrian, giza harremanetarako eguneroko espazioetan.

Historian zehar berdintasunaren aurrerapenen aurrean gertatu den bezala, mugimendu antifeminista baten goraldian gaude gaur egun, diskurtso erreazionario eta misoginoetan adierazten dena. Narratiba horiek oinarritzko konkistak zalantzan jartzea, nahasmendua sortzea eta indarkeria matxistaren existentzia deslegitimatzea bilatzen dute. **Diskurtso antifeministak** erasoaldi politiko eta kolektiboki antolatua osatzen dute, eta eztabaida publikoan ezin dira beste iritzi bat bezala onartu.

Berdintasunaren defentsa ez da aukera bat, ezta ideologia bat ere: **giza eskubide unibertsala da, aitortua eta babestua**. Hamarkadetan kolektiboki borrokatuz eta lan eginez lortu duten eskubidea da emakumeek, mugimendu feministak, erakundeek eta pertsona aliatuek, batez ere, diskriminazioa desagerrarazteko, askatasunak zabaltzeko eta guztientzako aukerak bermatzeko.

Berdintasunean hezten duen, estereotipoak baztertzeko dituen eta errespetuan, askatasunean eta duintasunean oinarritutako harremanak sustatzen dituen gizartea aldarrikatzen dugu; baita indarkeria matxistaren biktimak eta bizirik atera direnak aintzat hartzen, laguntzen eta entzuten dituen ere. Izan ere, ozen eta garbi esaten dugu **berdintasunik gabe ez dagoela erabateko demokraziarik, eta indarkeria matxista desagerrarazi gabe, ez dagoela guztientzako askatasunik**.

Martxoaren 8an, euskal udalek dei egiten diegu herritar guztiei eta erakunde guztiei batuta eta elkartuta irmo egon gaitzen **lortutako eskubideak defendatzeko** eta , atzera pausurik gabe, berdintasun erreal eta eraginkorrerantz aurrera egiten jarraitzeko.

Horregatik, Eskoriatzako Udalak, I. Berdintasun Planeko ildoak jarraituz, konpromiso hauek hartzen ditu:

- Gure udalerrri eta eskualdeetan taldeak sor daitezen sustatzea, **diskurtso** misogino eta **antifeministei aurre egiteko** eta informazio faltsuen hedapena desaktibatzen laguntzeko.
- **Erresistentzia-aliantzak** sustatzea talde feminista eta tokiko beste eragileekin, jarrera antifeministak identifikatzeko eta eteteko bizikidetzeta-espazioetan eta komunitate birtualetan.
- **Baliabideak eta egiturak** zaintzea eta babestea, gure udalerrian berdintasun-politikek aurrera egiten jarrai dezaten.

Dei egiten diegu herritarrei bat egin dezaten Martxoak 8-Emakumeen Nazioarteko Egunean tokian-tokian antolatzen diren deialdi eta aldarrikapenekin. Eskoriatzan, 18:00 egingo den manifestaziora hurbiltzera animatzen zaituztegu.

## **16.- GALDE-ESKEAK.**

Ez da egon.

**Eta beste gairik ez dagoenez, 18:10ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**

## **ERANSKINA**

### **LERRO ESTRATEGIKOAK, HELBURU ZEHATZAK ETA LAGUNTZA PROGRAMAK ETA LERROAK. (2026ko ekitaldia)**

#### **1. LERRO ESTRATEGIKOA: KULTUR DINAMIZAZIOA.**

1. Helburu estrategikoa:

Herriko kultur egiturari laguntza eman, zabaltu eta sustatu, parte hartzen duten eragileen lana bultzatuz eta kultur sorkuntzari laguntzeko ereduak finkatuz.

2. Helburu zehatzak:

- Herriko kultur egiturari laguntza eman, zabaltu eta sustatu, kultur sorkuntzari laguntzeko ereduak finkatuz.

- Herritar orori zuzendutako ondorengo diziplinetako sorkuntzara, ekoizpena eta kultur hedapenera bideratutako programa eta jarduerak babestea, zabaltzea eta sustatzea: musika, dantza, antzerkia, folklorea, arte plastikoak, ikus-entzunezkoak, argitalpenak eta abar.
  - Euskal historiaren eta kulturaren –bereziki, Eskoriatzakoarenak- balore propioak transmititzeko programak edota jarduerak babestu, zabaldu eta sustatzea.
  - Euskaraz edo euskararen erabilera sustatzeko egindako programak edota jarduerak babestu, zabaldu eta sustatzea.
3. Egikaritze epea:  
Urteroko deialdiak.
  4. Finantzazio iturriak:  
Udal aurrekontua, jarduera planean eta lerro zehatzetan jasotako aurrekontu aplikazioen arabera.
  5. Dirulaguntzak emateko prozedura:  
Lerro estrategiko hau egikaritzeko dirulaguntzak norgehiagoka prozedura bidez edo aurrekontuan laguntza izendunak dituzten elkarteekin egindako hitzarmen bidez emango dira.
  6. Jarduera plana:  
Lerro estrategiko hau egikaritzeko jarduera plana deialdietarako oinarriak eginez edota berariazko lankidetzaren hitzarmen bidez egingo da ondorengo dirulaguntza lerro bakoitzerako.
  7. Dirulaguntza lerro zehatzak:

#### **A) PROGRAMAREN DESKRIKAPENA: ESKORIATZAN EGINGO DIREN PROGRAMA ETA KULTUR JARDUERETAKO DIRULAGUNTZAK.**

**HARTZAILEAK:** Deialdia arautzen duten oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.

**HELBURUA:** Urtean zehar Eskoriatzan egiten diren kultur programa eta jarduerak diruz laguntzea.

**LORTU GURA DENA:** Herrian kalitatezko kultur jarduerak eskaintzea eta herritarren eta kultur elkarten parte hartzea eta lankidetzaren sustatzea.

**DIRULAGUNTZA MOTA:** Norghegiagoka.

**KOSTUEN AURREIKUSPENA:** 2.500 €

**FINANTZIAZIOA:** 0400.481.334.00.01 partida



## **B) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: ESKORIATZAKO BEHEKO ERROTA MUSIKA ESKOLA DIRUZ LAGUNTZEKO PROGRAMA.**

HARTZAILEA: Beheko Errota musika eskola.

HELBURUA: "Beheko Errota" musika elkarte pribatua aspalditik Eskoriatzan egiten ari den lana bultzatzea, eta eskoriatzarrei musika formazioa emateko eta musika zabaltzeko lanetan laguntzea.

LORTU GURA DENA: Musika eta dantza eskola zerbitzua ematea Eskoriatzan.

DIRULAGUNTZA MOTA: Dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 82.500 €

FINANTZIAZIOA: 0400.481.326.10.01 partida

## **C) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: KULTURA SARIAK**

HARTZAILEAK: Udalak antolatutako lehiaketetan parte hartu nahi duten eskoriatzarrak.

HELBURUAK: Antolatutako lehiaketetan herritarren parte hartzea sustatzea sariak zuzenean emanez irabazleei.

LORTU GURA DENA: Herritarrak aktiboak izatea eta parte hartzea kultur tradizioak indartzeko eta herriko kultur jarduerari eusteko Udalak antolatutako lehiaketetan.

DIRULAGUNTZA MOTA: Deialdi publikoa. Lehiaketak.

AURREIKUSITAKO KOSTUA: 2.500 €

FINANTZIAZIOA: 0400.480.334.00.01 partida

## **D) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: FERIXA**

HARTZAILEA: Arizmendi Koop. Elkartea

HELBURUAK: Arizmendi Koop. Elkarteari diruz laguntzea urtero antolatzen duen Ferixiek sortutako gastuak finantzatzeko.

LORTU GURA DENA: Gastronomia, artisautza eta euskal folklorea protagonista dituen euskal feria tradizionala sustatu eta zabaltzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 4.000 euro

FINANTZIAZIOA: 0400.471.431.10.01 partida

## **E) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: ASTE ZAPATISTA**



**HARTZAILEAK:** TEPEZ Elkarte

**HELBURUA:** Aste zapatista antolatzeko dirulaguntza. Besteak beste hitzaldiak, mahai-inguruak, kontzertuak, ikus-entzunezkoen emanaldiak, umeentzako ekintzak, “zapatista eguna” eta sukaldaritza tailerrak antolatzen dira.

**LORTU GURA DENA:** Aniztasun kulturala eta pentsamendu kritikoa sustatzea  
Zapatismoa bezalako gizarte eta mugimendu alternatiboek buruzko ezagutza eta hausnarketa bultzatzen duten ekimenak babestuta.

**DIRULAGUNTZA MOTA:** Dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean.

**KOSTUEN AURREIKUSPENA:** 4.000 euro

**FINANTZIAZIOA:** 0400.481.334.50.01 partida

#### **F) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: #ZEDEMONTRE**

**HARTZAILEAK:** Eskoriatzan jaiotako edo bertan bizi diren artistak eta sortzaileak.

**HELBURUA:** Musika, antzerkia eta bestelako diziplina artistikoetan jarduten duten herriko sortzaileen lana plazaratu nahi da, tokiko sormenari ikusgarritasuna emanaz eta herriko kultur bizitzari aberastuz.

**LORTU GURA DENA:** Herriko sortzaileen ekoizpen artistikoa erraztea, baliabide teknikoak eskainita euren jarduerak plazaratzeko. Tokiko talentua balioan jartzea, sormen sektorea indartzea eta herriaren identitate kulturala sendotzea.

**DIRULAGUNTZA MOTA:** lehiaketa

**KOSTEEN AURREIKUSPENA:** 1.500 euro.

**FINANTZIAZIOA:** 0400.480.334.80.01 partida

#### **G) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: AUZOETAKO JAIK**

**HARTZAILEAK:** Eskoriatzako herritarrak edo elkarteak

**HELBURUA:** Herriguneko nahiz elizateetako auzoetan jaiak antolatzeko gastuak ordaintzeko laguntza honen helburua da auzoen kohesio soziala indartzea, kultur adierazpenak bultzatzea eta herriko tradizioak bizirik mantentzea.

**LORTU GURA DENA:** Auzoetako ekintzak dinamizatzeko helburuarekin egiten diren jaietako gastuen zati bat finantzatzea. Ekimen hauen bidez, parte-hartze aktiboa sustatu nahi da, auzolanaren balioa indartuz, eta herritarren inplikazioa handituz jaien antolaketan eta garapenean.



DIRULAGUNTZA MOTA: Norgehiagoka.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 3.000 €

FINANTZAZIOA: 0400.481.338.10.01

#### **H) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: “EZKURTZO ipuin kontari”**

HARTZAILEAK: Arizmendi Koop. elkarte

HELBURUA: Arizmendi ikastolak Eskoriatzako elizateetan nahiz herrigunean urtero antolatzen duen Ezkurtzo ipuin kontari programa antolatzeko gastuak ordaintzen laguntzea.

LORTU GURA DENA: Hurrei zuzendutako jardueren bidez, hala nola ipuin-kontaketa, ibilaldiak, txokolate-jana eta jolas tradizionalak, Eskoriatzako elizateak ezagutarazten dira eta, horrela, landa-inguruneko kultura-ondarea balioesten da, materiala zein ez-materiala.

DIRULAGUNTZA MOTA: zuzena.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 1.000 €

FINANTZAZIOA: 0400.471.334.40.01

#### **I) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: “SAN PEDRO/INTXAURTXUETAREN DINAMIZAZIOA”**

HARTZAILEA: SAN PEDRO ETA INTXAURTXUETA BIZILAGUN ELKARTEA.

HELBURUA: San Pedro/Intxaurtxuetako jaiak antolatu eta urtean zehar egingo diren egitasmoak antolatzeko gastuak ordaintzeko laguntzak.

LORTU GURA DENA: Elkartegintza eta bizilagunen arteko harremana eta sozializazioa sustatu nahi da, eta baita San Pedro Intxaurtxuetan egiten diren kultur jarduerak eta jaiak babestu, herriko kultur agente diren heinean eta herriko kultur programazioa osatzen delako.

DIRULAGUNTZA MOTA: zuzena.

KOSTEEN AURREIKUSPENA: 10.000 €

FINANTZAZIOA: 0400.481.334.53.01

#### **J) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: “HAIXE BOLADA”**

HARTZAILEA: AD LIBITUM MUSIKA ELKARTEA.

HELBURUA: Euskal Herriko hainbat musika talderen arteko "HAIXE BOLADA" kale-musika topaketa antolatzeko gastuak ordaintzeko laguntzak.

LORTU GURA DENA: Ekimen honen bidez, AD LIBITUMeko kideak bezala modu amateurrean musikan aritzen diren hainbat musika talde eta eragileren topaketa antolatu nahi da,



elkarlanean aritzeko, esperientziak partekatzeko eta sormena sustatzeko, eta baita, egungo kultur eskaintza zabaldua, eskoriatzarrei hainbat kontzertuz gozatzeko aukera eskaintzeko ere.

DIRULAGUNTZA MOTA: zuzena.

KOSTEEN AURREIKUSPENA: 1.000 €

FINANTZIAZIOA: 0400.481.334.51.01

#### **K) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: "LUR ANITZ FEST"**

HARTZAILEA: GAYLUR EUSKADI.

HELBURUA: "Lur Anitz Fest" jaialdiaren antolaketarekin herritarren artean inklusioa, berdintasuna eta aniztasunarekiko errespetua bultzatzea.

